

EAE-ko IRAKASLEEN KIDEGOETAN SARTZEKO, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA GORAGOKO SAILKAPENEN BESTE BATEAN SARTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK

AGINDUA, 2022ko abenduaren 19koa (2022/12/28ko EHAA)

Espezialitateko gai baten garapena (ahoz eta/edo idatziz) ebaluatzeko eta kalifikatzeko errubrika.

V. eranskina eta Hautaketa Batzordearen akta

KOMUNIKAZIORAKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA		
Bikain – Oso ondo	Hiztegi tekniko zehatza, aberatsa, askotarikoa. Gaira egokitutako diskurtso-erregistroa, berariazko terminologia. Espezialitatearen eta lanbide-esparruaren hizkera espezifiko menderatzea. Zehaztasun semantikoa. Zuzentasun ortografiko, gramatikal eta sintaktiko handia. Jariakortasuna, argitasuna eta ordena.	
Zuzena – Egokia	Askotan gaiari egokitutako hiztegia, baina apur bat eskasa. Aniztasun, aberastasun eta diskurtso-komplexutasun mugatuak gaiari/espezialitateari dagokionez. Adierazpen-jario ertaina: erraz ulertu bai, baina ez bikaina. Alferriko errepikapen zein argudio antzu batzuk. Akats ortografiko, gramatikal edo sintaktiko arinak.	
Gutxi gorabehera – Gauzak faltan	Pobrezia lexikoa. Hizkuntzaren aukeraketa batzuetan desegokia gaiarentzat, edo maila tekniko eskasa. Hiztegi mugatua eta errepikakorra, edo termino hutsalak eta zehaztugabeak. Esanahia atzematea maiz zaila. Akats ortografikoak, gramatikalak eta sintaktiko nabariak. Jariakortasun, argitasun eta diskurtso-orden eskasa.	
Ez nahikoa – Eskasa	Hizkuntza hautaketa ez da egokia gaiarentzat. Oso maila zientifiko-tekniko eskasa. Edo ez dago berau ebaluatzeko material/ebidentzia nahikorik. Hiztegi oso mugatua, akats semantiko, ortografiko, gramatikal edo sintaktiko larri eta ugariarekin. Komunikazio- eta ulermen-zailtasun handiak.	

AURKEZPENA: DISKURTSOAREN ANTOLAKETA ETA EGITURAKETA		
Bikain – Oso ondo	Kalitate handiko diskurtso-egitura. Modu logikoan, ordenatuan eta argian aurkeztutako informazioa. Sarrera, garapena eta ondo antolatutako ondorioak bereizten ditu. Ideia guztiak tesiarri lotuak, oso ongi eraikitako segida batean: perpaus tematiko batek ideia bat aurkezten du, ondoren garatzen dena.	
Zuzena – Egokia	Egitura zuzena, baina sinplea, laua. Paragrafo ondo egituratuak eta, oro har, tesiei lotutako ideiak aurkezten dituztenak. Ideien sekuentzia ez da beti behar bezain argia, batzuetan deskonektatua. Bat-bateko trantsizio zorrotzak batzuetan, diskurtso-koherentziaren kaltetan. Argudioen segida edo kontzeptuen arteko lotura adierazteko zailtasun batzuk.	
Gutxi gorabehera – Gauzak faltan	Diskurtso-egitura eskasa, nolabaiteko desantolaketa eta ideien sakabanatzea. Zenbait kontzepturen aurkezpen nahasia edo zentzugabea. Gaizki egituratutako paragrafo batzuk, gaikako perpausik gabe edo hainbat ideia nahastuta. Askotan, zaila da ulertzea tesiekiko lotura eta komunikatu beharreko mezua.	
Ez nahikoa – Eskasa	Zentzunik ez. Antolaketa eta egitura logikorik gabe. Ordena falta, ulertzeko zailtasun nabariak, iluntasuna. Edo ez dago nahikoa material berau ebaluatu ahal izateko (ganorazko edukirik ez). Ideia-entsalada bat. Diskurtso-inkoherentzia. Argumentu-hariari jarraitu edo defendatu nahi diren tesiak ulertu ezin.	

GAIAREN EZAGUTZA ZIENTIFIKO-AKADEMIKOA		
Atal hau ebaluatu eta kalifikatzeko, zozketaren ondorioz dagokion gai zehatzerako, Hautaketa Batzordeak prestatutako berariazko zuzenketa-txantiloia hartuko da erreferentziatzat eta IV. eta V. eranskinetan xedatutakoaren arabera.		
Bikain – Oso ondo	Gaiari buruzko goi mailako ezagutza akademikoa. Tesi interesgarriak, argiak eta sortzaileak. Ongi landutako eta egituratutako entsegua, sakona, ondo garatutako kontzeptuak. Adierazitako tesiak argitzeko xehetasun espezifikoak, ondo hautatuak. Erreferentzia egokiak, datu garrantzitsuak, aipamen eruditoak, ideia oso interesgarriak eta argudio zuzenak. Elaborazio pertsonala eta ekarpen propioak.	
Zuzena – Egokia	Oro har ondo, baina sakonera eta erudizio handiagoa espero liteke. Ideia, argudio eta tesia interesgarri batzuk, hainbat aipamen eta erreferentzia zuzen, baina gehiago azter lezake gaia, garapen eta/edo maila handiagoz. Gehienbat zuzena, baina ideia batzuk gutxi garatu, edo tesiekin lotura argirik ez. Hobetzekoa, osotu gabea. Ekarpen pertsonal txikia. Lan nabarmena, baina ez bikaina.	
Gutxi gorabehera – Gauzak faltan	Edukiaren maila zientifiko-akademiko eskasa. Azalekoa. Tesi ez oso argiak, nahasiak, sakabanatuak edo gutxi garatuak. Akats akademikoak. Gaia gainetik soilik aztertu da, erdizka garatu. Ezagutza teoriko nahikorik gabeko ideiak, edo garrantzirik gabeak. Argudio ez zuenak. Akats handiak. Alferriko errepikapenak. Hutsune nabariak. Eduki gabezia esanguratsuak.	
Ez nahikoa – Eskasa	Ez du eskatutako gaia lantzen, edo ez dago hura ebaluatzeko material nahikorik. Azaleko ideiak edo ideia desegokiak, garapen gutxikoak eta maila akademiko txikikoak. Edo loturarik gabekoak. Eduki desegokia eta/edo nabarmen eskasa. Akats asko eta/edo larriak ditu. Eduki epistemologikoa ez ezagutzea, integratzea eta menderatzea. Hutsune eta/edo gabezia larriak. Oro har, argudio-pobrezia. Garapen zuzenik ez.	

SORMENA ETA ORIGINALTASUNA		
Bikain – Oso ondo	Kalitatezko ekarpen propio, egoki, sortzaile eta originalak biltzen ditu. Planteamendu pertsonalak. Ezagutzaren integrazio eta lanketa pertsonalaren ebidentzia. Hausnarketa autonomoa eta kritikoa.	
Zuzena – Egokia	Ekarpen edo hausnarketa pertsonalaren bat egiten du, egokia edo ez hain egokia. Gaiari buruzko ezagutza global koherentea eta integratua adierazten du, pentsamendu autonomoaren adierazpen txikiekin.	
Ez nahikoa – Eskasa	Oso ekarpen pertsonal eskasa. Ikasitako edukiaren erreproduzio hutsean geratzen da, inongo elaborazio ala ekarpen pertsonalik, ezagutzaren integratzean eta pentsamendu autonomorik gabe.	

Hautaketa Batzordearen aktan jasoko dira atal zein azpialat bakoitzari emango zaizkion puntuazio-tarte zehatzak.

PROCESOS SELECTIVOS PARA EL INGRESO EN CUERPOS DOCENTES DE LA CAPV, ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO TEMPORAL Y ACCESO A OTRO DE CLASIFICACIÓN SUPERIOR

ORDEN de 19 de diciembre de 2022 (BOPV 28/12/2022)

Rúbrica para la evaluación y calificación del desarrollo (oral y/o escrito) de un tema de la especialidad.

Anexo V y acta de la Comisión de Selección

COMPETENCIA LINGÜÍSTICA Y COMUNICATIVA		
Excelente – Muy bien	Vocabulario técnico preciso, rico, variado. Registro discursivo adecuado al tema, utilizando terminología propia del mismo. Dominio de acepciones específicas de la especialidad y ámbito profesional. Precisión semántica. Elevado nivel de corrección ortográfica, gramatical y sintáctica. Fluidez, claridad y orden.	
Correcta – Adecuada	Vocabulario casi siempre adecuado al tema, pero un tanto justo. Limitada variedad, riqueza y complejidad discursiva respecto al tema y la especialidad. Fluidez expresiva media: se entiende bien, pero no es brillante. Algunas reiteraciones innecesarias o ideas estériles. Leves errores ortográficos, gramaticales o sintácticos.	
Más o menos – Le falta	Pobreza léxica. Selección del lenguaje a veces inapropiada para el tema, o de escaso nivel técnico. Uso limitado y repetitivo de vocabulario y/o de términos vagos e imprecisos. Significado con frecuencia difícil de captar. Errores ortográficos, gramaticales y sintácticos evidentes. Poca fluidez, claridad y orden discursivo.	
Deficiente	La selección del lenguaje no es apropiada para el tema. O no hay suficiente material para evaluar. Vocabulario sumamente limitado, con abundantes y serios errores semánticos, ortográficos, gramaticales o sintácticos. Dificultades de comunicación y para la comprensión.	

PRESENTACIÓN: ORGANIZACIÓN Y ESTRUCTURA DISCURSIVA		
Excelente – Muy bien	Estructura discursiva de elevada calidad. Información presentada de manera lógica, ordenada y clara. Se estructura en introducción, desarrollo y conclusiones bien organizadas. Todas las ideas vinculadas a la tesis, en una sucesión bien construida: una oración temática introduce una idea que se desarrolla a continuación.	
Correcta – Adecuada	Estructura correcta, pero simple, sencilla. Párrafos bien estructurados y que en general presentan ideas vinculadas a las tesis. Secuencia de ideas no siempre clara y a veces desconectada. Transiciones bruscas en ocasiones, en detrimento de la coherencia discursiva. Algunas dificultades puntuales para seguir la sucesión de argumentos o la vinculación de los conceptos entre sí.	
Más o menos – Le falta	Escasa estructura discursiva, cierta desorganización y dispersión de ideas. Presentación confusa o incongruente de algunos conceptos. Algunos párrafos mal estructurados, sin oraciones temáticas o con varias ideas mezcladas. Con frecuencia, es difícil comprender la conexión con las tesis y el mensaje a comunicar.	
Deficiente	Organización y estructura lógicas inexistentes, desordenadas, oscuras o de difícil comprensión. O no hay suficiente material para poder evaluar. Una “ensalada” de ideas. Incoherencia discursiva. Dificultades para seguir el hilo argumental o comprender adecuadamente las tesis que se pretenden defender.	

CONOCIMIENTO CIENTÍFICO-ACADÉMICO DEL TEMA		
Este apartado se evaluará y calificará en base a la plantilla de corrección específica elaborada por la Comisión de Selección para el tema concreto de que se trate, como resultado del sorteo, y en base a lo dispuesto en los anexos IV y V.		
Excelente – Muy bien	Elevado dominio académico del tema. Tesis interesante, claras y creativas. Ensayo bien elaborado y estructurado, con conceptos profundos, de alto nivel y bien desarrollados. Incluye detalles específicos y bien seleccionados que apoyan las tesis defendidas. Aporta referencias pertinentes, datos relevantes, citas eruditas, ideas muy interesantes, argumentos adecuados. Elaboración personal y aportaciones propias.	
Bueno – Adecuado	En general bien, pero cabría mayor profundidad y erudición. Ideas, argumentos y tesis interesantes, varias citas y referencias, pero podría explorar más el tema, susceptible de mayor desarrollo y/o nivel. Adecuado y correcto, pero algunas ideas poco desarrolladas, sustentadas o sin relación clara con las tesis. Contenido mejorable y/o inconcluso. No mucha aportación personal. Trabajo notable, pero no brillante.	
Más o menos – Le falta	Escaso nivel científico-académico del contenido. Tesis poco claras, confusas, dispersas y/o escasamente desarrolladas, o que no presentan ideas académicamente defendibles. El tema ha sido explorado sólo superficialmente y desarrollado a medias, con muchas ideas sin soporte teórico suficiente, irrelevantes, improcedentes y/o reiterativas. Ausencias significativas de contenidos relevantes. Errores importantes.	
Deficiente	No elabora el tema solicitado, o no hay suficiente material para evaluarlo. Ideas superficiales y/o no pertinentes, con poco desarrollo y bajo nivel académico. O inconexas. Contenido inadecuado y/o claramente insuficiente. Presenta errores numerosos y/o graves. Ausencia evidente de conocimiento, integración y dominio del contenido epistemológico. Graves errores y/o carencias. En general, pobreza argumental.	

CREATIVIDAD Y ORIGINALIDAD		
Excelente – Muy bien	Incluye aportaciones propias, pertinentes, creativas y originales de calidad. Planteamientos personales. Evidencia integración y elaboración personal del conocimiento. Reflexión autónoma y crítica.	
Buena – Adecuada	Realiza alguna aportación o reflexión personal, más o menos adecuada. Manifiesta un conocimiento global coherente e integrado del tema, con pequeñas demostraciones de pensamiento autónomo.	
Escasa – Deficiente	Poca elaboración propia. Se limita a la reproducción del contenido aprendido, sin aportaciones personales, integración del conocimiento ni pensamiento autónomo.	

La Comisión de Selección recogerá en acta el rango concreto de puntuación que se asignará a cada apartado o sub-apartado.